



Arte eta egile proiektuei loturiko edizio independentearen munduan eraldakuntza-prozesu nabarmena gertatu da azken urteotan, sorkuntza-proiektuak egiteko autoedizioa aukeratu duten egileen agerpenak eraginda.

AutoEdit proiektuaren hirugarren edizioaren helburua da praktika autoeditatuak agerrarazten jarraitzea eta gogoeta gune berri bat sortzea autoedizioari buruz, arte-praktika gisa, ahalmena duena bai arauzko praktikak aldatzeko, bai ezagutza-eremu tazitu bat sortzeko: hau da, ezagutza-eremu aldagarri bat, formalizatzeko zaila, ezarrita dauden gune akademikoetan transmititzen ez dena, sareetan, tailerretan eta elkarlanerako prestakuntza-esperientzietan baizik.

Oraingo honetan, era askotako jardueraz osaturiko jardunaldi bat antolatu da, guztiak ere autoedizioari lotutakoak, hala nola proiektuak ikuskatzea, autofanzine eta estanpazio tailer bat, argitalpen autoeditatuei buruzko mikro erakusketa bat, Bookjockey saio bat Julián Barónen eskutik, eta Roberto Equisoainen ekintza performatibo bat.

Komisarioa:

J. P. Huércanos Oteitza Museoko zuzendariordea da eta eskulturari nahiz prozesu editorialei loturiko proiektuen komisarioa. Arlo horretan, Autoedit proiektuen komisarioa izan da. Forma eta eredu berriak autoedizioan eta argitalpen independentean, Arte Garaikideko Uharte Zentroan (2014-2015), Do It With Others, Praktika autoeditatuak irudiaren hizkuntzetan, Madrilgo Cibeles Zentroan (2015-2016), eta AutoEdit II. Autoedizioa eta hizkuntza plastikoak, Arte Garaikideko Uharte Zentroan (2016).





Egitaraua

2017ko maiatzaren 13a, larunbata

12.00-14.00

Proiektuak ikuskatzea

17.00-21.00

Autofanzinea eta kamisetak estanpatzeko tailerra, Equipo A-ren eskutik

18.00-21.00

Gabriela Cendoya Bergareche Bildumako argitalpen autoeditatuen gaineko mikro erakusketa. 18:00etan, bildumazaleak materialen aurkezpen laburra egingen du.

19.00

Fotokopiak ematea, zirkularaztea. Julián Barónen BookJockey saioa (40')

20.00

Astero liburu bat. Liburu bat? Roberto Equisoainen ekintza performatiboa (30')

Autoedizioko proiektuak ikuskatzea

Proiektu editorial bat garatzen ari diren egileen arteko topagune bat. Egileek beren lana aurrez aurre aurkeztuko diete kultur eragile batzuei, eta kultur eragileek beren iritzia, aholkuak, erreferentziak, gomendioak eta kontaktuak emanen dituzte. Helburua da proiektuak halako erkaketa profesional bat izatea, huraxe hobetze aldera.

Autofanzinea eta kamisetak estanpatzea Equipo A-ren Tailerra

Tailer praktiko bikoitza da, jendeak fanzine bat egiteko, eta bakoitzak bere serigrafia erabiliz bere kamiseta estanpatzeko. Argazkiaren eta argazki horren formaren abstrakzioaren artean dagoen distantzia egin ondoren, tailerrean parte hartzen duten guztiek ederki ulertuko dute irudi garaikidearen atzean dagoen sekretu handia, haren elastikotasun infinitua.

Tailerrean parte hartzen dutenek beren fanzinea egiteko aukera izanen dute. Estanpazio ekitaldian aritzen direnek, bestalde, kamiseta bat eraman beharko dute, eta haren gainean irudi bat estanpatuko dute; hots, aurrez aukeratu eta landua izanen duten irudia.

Equipo A Alejandro Maroteren proiektu bat da. Alejandro artista eta **Blank Paper** kolektiboko kidea da.

Argitalpen autoeditatuei buruzko mikro erakusketa Bulduma: Gabriela Cendoya-Bergareche

Erakusketa pop up moldekoa da eta argitalpen autoeditatuak eta photobook-ak jarriko dira ikusgai. Azken urteotan, sortzaile garaikideek ondutako argitalpen autoeditatuak erakutsiko dira, bai eta proiektu-tipologia batzuk ere, hala nola fanzineak, egile-liburuak, ia artisautza moldean egindako edizioak, bai eta photobook arruntenetik hurbilago dauden edizioak ere.

Gabriela Cendoya-Bergareche, Donostian jaioa baina bizitzaren gehiengoa Bordelenpasa du. Kultura bikoitz horrek eragina izan du bere izaeran eta baita bere bilduman ere, hau nahiko eklektikoa baita.



Fotokopiak ematea, zirkularaztea **Julián Barónen BookJockey saioa**

BookJockey argazki-liburuak DJ saio baten gisara erakutsi eta gozatzeko formatu berri eta esperimentalak da. Argitalpen independente sorta bat da proposamenaren abiapuntua, eta guztiek ere argazkia dute hedapen eta komunikazio euskarri. Argitalpen fotokopiagarri horien helburua da haien edukiak zuri-beltzezko bilbe horren bidez zirkularaztea. Horrela, jardueraren asmoa esperimentazio gune txiki bat sortzea da.

Julián Barón. Valentzia eta Castellongo Blank Paper. Online eskolako zuzendaria eta argazkilaritza irakaslea (2007- 2015). Bere ekoizpen bisuala zein egiten duen hezitzaile lana, testuinguru sozio politiko nahasi baten aurka erantzuten dute.

Astero liburu bat. Liburu bat? **Roberto Equisoainen ekintza performatiboa**

Aurkezpena, irakurketa, ekintza eta elkarrizketa.

— Baina, zer da liburu bat?

— Ez dakit, edozer gauza.

Txor-txor. Txor-txor txor. Txor-txor. Txor-txor-txor txor. Txor-txor. Txor-txor-txor-txor Txor-txor -txor-txor-txor txor. Txor-txor-txor-txor-txor. Txor-txor. Txor-txor-txor-txor Txor-txor-txor-txor-txor txor. Txor-txor. Txor-txor. Txor-txor-txor-txor, txor-txor. Txor-txor-txor-txor. Txor-txor-txor-txor. Txor-txor 1998 Txor-txor-txor Txor-txor. Txor-txor-txor. Txor-txor-txor, txor-txor-txor. Txor-txor-txor. Txor-txor-txor-txor-txor. Txor-txor-txor-txor txor-txor. Txor-txor-txor. Txor-txor-txor-txor.

Roberto Equisoain (Iruñea, 1973) idazten ez duen idazlea da, ez-idazle bat, alegia. Haren teknikarik gogokoena berridazketa, desitxuratzea, plagioa, metaketa, sailkapena eta birziklapena dira. 1998tik hona, Berlinen bizi da. Belleza Infinita, Produccionsescopeta, 1+1=11, Escrito a lápiz eta Milena Berlín izeneko etxeek editatu dizkiote liburuak.

